**5394**

EDIKTUA, 75/2006 Dekretuaren 7.3.5 eta 9.2 atalak zati batean baliogabe deklaratzen dituena. Apirilaren 4ko 75/2006 Dekretu horren bitartez, Aizkorri-Aratz aldeko Natur Baliabideak Antolatzeko Planari behin betiko onarpena eman zitzaion.

Apirilaren 4ko 75/2006 Dekretuaren bitartez, Aizkorri-Aratz aldeko Natur Baliabideak Antolatzeko Planari behin betiko onarpena eman zitzaion (2006-05-19ko EHAA, 94. zenbakia). Dekretu hori baliogabe uzteko edo ezeztatzeko, Eusko Jaurlaritzak errekerimendua (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 44. artikuluaren babespean emana) ezezteko emandako 2006ko irailaren 12ko erabakiaren kontra Arabako Foru Aldundiak sustatutako 1274/06 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoan epaia eman da 2008-06-25ean. Epai hori irmoa da eta epaitzan honako erabakiak jasotzen ditu:

Zuzenbidearekin bat ez datozela eta, horregatik, honako hauek baliogabeak direla deklaratzea:

A) Aizkorri-Aratz aldeko Natur Baliabideak Antolatzeko Planaren 7.3.5 atalaren bigarren paragrafoko azken zatiak honela dio:

«Parke Naturalean ez da baimenik emango kanpoaldeko lanak egiteko, obrak egiteko, ibilgailuak ibiltzeko, ez eta lur azpiko ustiapenekin lotutako azpiegiturarik ezartzeko ere. Salbuetsita geratzen dira administrazio eskudunek langileen segurtasun eta osasun arrazoiengatik eskatutako lanak».

B) Aipatutako planaren 9. atalaren 2. idatz-zatiaren azken paragrafoa, honela baitio:

«Kanpoaldeko eraginik gabe, lurpeko lanen bitartez meak ateratzea».

Eta denek jakin dezaten ematen da esandakoaren berri, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen (AAJL) 107. artikuluan xedatutakoa betez.

Bilbao, 2008ko irailaren 2a.

IDAZKARI JUDIZIALA.

**5394**

EDICTO por el que se declara la nulidad parcial del apartado 7.3.5 y 9.2 del Decreto 75/2006, de 4 de abril, por el que se aprueba definitivamente el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del Área de Aizkorri-Aratz.

Se hace saber que en el recurso contencioso-administrativo número 1274/06 -promovido por la Diputación Foral de Álava contra el Acuerdo del Gobierno Vasco de 12 de septiembre de 2006, por el que se rechazó el requerimiento, formulado al amparo del artículo 44 de la Ley de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, para que anulara o revocara el Decreto 75/2006, de 4 de abril, por el que se aprobó definitivamente el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del Área de Aizkorri-Aratz, publicado en el BOPV n.º 94, del 19 de mayo de 2006-, se ha dictado sentencia el 25-06-2008, que ha alcanzado el carácter de firme, en cuyo fallo se ha acordado:

Declarar la disconformidad a derecho y por ello la nulidad de los siguientes preceptos:

A) Del inciso final del párrafo segundo del apartado 7.3.5 del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del Área de Aizkorri-Aratz, en el que se dice:

«Tampoco se autorizarán en el Parque Natural labores de superficie, obras, tráfico de vehículos ni instalaciones de infraestructura ligadas a explotaciones subterráneas. Se exceptúan aquellas labores exigidas por las administraciones competentes por razones de seguridad y salud de trabajadores y trabajadoras».

B) Del último párrafo del número 2 del apartado 9 del citado Plan, del siguiente tenor:

«La extracción de recursos minerales mediante laboreo subterráneo, sin afecciones a superficie».

Lo que en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 107 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa (LJCA), se hace público para general conocimiento.

En Bilbao, a 2 de septiembre de 2008.

EL/LA SECRETARIO JUDICIAL.